

# SORMEN BEKA



---

## OINARRIAK 2026

1. Xedea, baldintzak eta diru laguntzaren helburua
2. Sorkuntza Bekaren onuradunak
3. Sorkuntza Bekaren zenbatekoa
4. Beste diru laguntza batzuekin bateragarri
5. Eskariak nola egin: baldintzak, epea, modua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa
6. Balorazio irizpideak
7. Epai mahaia
8. Ebazpena eta jakinarazpena
9. Diru laguntzaren ordainketa
10. Sorkuntza Bekaren onuradunaren betebeharrak
11. Sorkuntza Bekaren zuriketa
12. Itzulketa
13. Sorkuntza Bekaren lan irabazlearen zabalkundea
14. Datuen babesa
15. Oinarrien onarpena

1. Xedea, baldintzak eta diru laguntzaren helburua

Deialdi honen helburua, euskarazko kultur sorkuntzarako beka prozedura arautzea da, Durangoko Azokaren ekimenean barruan.

Beka honen helburua euskarazko sorkuntza sustatzea eta sortzaile berrien lana ezagutzera ematea da. Gerediaga Elkartek eta Durangoko Udalak euskarazko lanen zabalkundea egin eta sortzaile berriei bidea erraztu nahi diete, Durangoko Azokaren bueltan.

Kultur sorkuntzaren barruan Durangoko Azokak bere baitan hartzen dituen diziplinak izango dira kontuan: literatura, musika, antzerkigintza eta ikus-

entzunezkoak. Aurkez daitekeen proposamena diziplina bat edota diziplinen arteko uztarketa izan daiteke. Baina, deialdi bakoitzean diziplina bat hartuko da oinarritzat. 2026an, musika izango da oinarri (edozein generotakoa).

Beka honek bi urrats ditu: sorkuntza lana bera eta sorkuntzaren emaitza plazaratzea (edizioa, produkzioa, taularatzea ...).

Deialdira aurkeztuko diren lana aurkezterakoan kontuan izan:

- Jatorrizko sormen lana izan behar dela. (Ez dira lan bertsionatuak onartuko)
- Ez dira onartuko adimen artifizialarekin sortutako lanak.
- Diziplina arteko uztarketa izan daiteke, baina pisu nagusia musikak izan behar du.
- Hitzak barne dituen sormen lana bada, euskara hutsekoa izan behar du.
- Sorkuntza lana bera eta emaitza nola plazaratuko den jaso beharko dira aurkezten den proposamenean.

## 2. Sorkuntza Bekaren onuradunak

Bakarkako lana edo talde lana izan daiteke. Talde lana denean, taldekide guztiek bete beharko dituzte baldintzak. Lanen bat taldean aurkezten bada, taldeak pertsona bakarra aukeratuko du taldearen ordezkari.

Eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkez dezake.

Baldintzak:

- Eskatzaileak 18 urtetik gora eduki beharko ditu eskabidea egiterakoan.
- Eskatzailea sortzaile berria izan behar da (jarraian azalduta definizio horretatik aparte ulertzen direnak).

Kanpo geratzen diren eskatzaileak:

- Ibilbide luzeko sortzaileak.
  - a. Bakarka zein taldeka, eskatzaileak lan bi kaleratuta dituenean, euskarri fisikoa eta digitala kontuan hartuta.
  - b. Bost kolaboraziotik gora eginda dituenean.
  - c. Disketxe batekin kontratua sinatuta izatea.

- Zuzenean edo zeharka giza eskubideak urratzen dituen edozein proposamen.

### 3. Sorkuntza Bekaren zenbatekoa

Bekaren zenbatekoa honakoa izango da: 15.000 €, sorkuntza eta plazaratzea barne.

Proiektu bakarrari emango zaio diru-laguntza eta hori lehiaketa bidez aukeratuko da. Epaimahaiak aurkeztutako proiektuen artean nahikoa kalitate ez dagoela ikusiko balu, beka ez ematea erabaki dezake.

### 4. Beste diru laguntza batzuekin bateragarritasuna

Gerediaga Elkartek eta Durangoko Udalak eskaintzen duten beka, helburu berarekin ematen diren beste edozein diru-laguntzekin bateragarria izango da. Onuradunak aurkeztutako beste diru-laguntzen berri eman beharko dio Gerediagari.

### 5. Eskariak nola egin: baldintzak, epeak eta modua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskabidea egiteko epea, deialdia egiten den egun berean hasi eta irailaren 21ean amaituko da. Jai eguna izanez gero, hurrengo lanegunera arte luzatuko litzateke.

Eskabideak posta elektronikoz egingo dira [gerediaga@durangokoazoka.eus](mailto:gerediaga@durangokoazoka.eus) helbidean. Eskaria egiteko beharrezko galdetegi eta ereduak, berriz, [www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus) webgunean egongo dira.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskaera-orria (Proiektuaren izena, partaideen izenak, kontakturako informazioa)
- Eskatzailearen NANaren fotokopia (edo talde ordezkariarena).
- Proiektua originala dela ziurtatuz eta beste diru-laguntzaren bat jaso edo eskatu bada aitortza.
- Sortzailearen kurrikuluma eta taldea bada taldeko kide guztiena (kaleratutako lanen edo kolaborazioen aipamen berezia eginda)
- Proiektuaren azalpena:
  - Sormen lana egiteko motibazioa
  - Deskribapena.

- Beste edozein azalpen
- Laginak:
  - 5 minutuko audioa (eskatzaileak erabakiko du kantuen kopurua eta Mp3 formatuan)
  - Konposizioa bada, gutxienez 3 minutuko lagina (mp3 formatuan) eta partitura.
- Balorazioa egiteko beharrezko ikusten den beste edozein dokumentazio.

Galdetegieta kanpo, proiektuari buruzko idazki guztiak Times New Roman 12 pt – 1'15 lerro artekoan eginda eta PDF formatuan aurkeztu beharko dira.

Epaimahaiak komenigarri ikusiko balu, edozein informazio gehigarri eska dezake.

Eskatzaileak eginiko eskabideak akatsak balitu, horiek zuzentzeko 10 eguneko epea emango zaio, jakinarazpena bidaltzen denetik.

## 6. Balorazio irizpideak

Balorazioa egiteko orduan, honako irizpideak hartuko dira kontuan:

- Proiektuaren kalitatea eta gaiaren tratamenduak sor dezakeen interesa (%45)
- Gaitasun berritzailea eta originaltasuna (%20)
- Proiektuaren hedatze ahalmena (%15)
- Kontuan hartuko dira zenbateraino sustatzen diren kultur artekotasuna, genero-berdintasuna eta integrazioa. (%10)
- Aurrez aurreko proiektuaren defentsa (%10)

## 7. Epaimahaia eta jarraipen batzordea

Epaimahaia musikan aditu diren lau kidek osatuko dute. Hala behar izanez gero, euskal kulturako beste adituren baten txosten edo iritzia eska dezake.

Jarraipen batzordea eratuko da, proiektua behar bezala garatzen dela ebaluatzeko eta bermatzeko. Egokitzapenik edo aldaketarik proposatuko balitz, batzorde horri dagokio proposamenak baimentzea.

Oinarrien interpretazioaren harira, sor daitekeen edozein zalantza, epaimahaiak argituko du.

## 8. Ebazpena eta jakinarazpena

Bidalitako eskariak aztertu ondoren, epaimahaiak hiruzpalau proiektu aukeratuko ditu. Aukeratutakoek epaimahaiaren aurrean proiektuaren defentsa egin beharko dute, eta egon daitezkeen zalantzak argitu.

Behin aurkezpenak eginda, epaimahaiak erabakia hartuko du, eta proiektua aurkeztu dutenei jakinaraziko die.

Epaimahaiak hartutako erabakiaren kontra, ez da egongo alegaziorik aurkezteko aukerarik.

Jakinarazpen prozesua sinpleago, azkarrago eta errazagoa izateko, erabakia telefonoz edo emaniko posta elektronikoa jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Bekaren irabazlea Durangoko Azokaren egitarauaren barruan jakinaraziko da. Bekaren onuradunak Azokan eta prentsaurrekoetan parte hartzeko prest egon beharko du.

## 9. Sorkuntza Bekaren ordainketa

Beka 3 alditan ordainduko da: %30a ebazpena onartzean, %40a handik sei hilabetera, txostenaren aurkezpenarekin batera, eta azken %30a Durangoko Azokan lana plazaratzean.

Irabazleak proiektua gauzatuko ez balu, aurrerakin gisa jasotako diru-kopurua itzuli beharko dio Gerediagari.

## 10. Sorkuntza Bekaren onuradunaren betebeharrak

- Proiektua esandako eran eta epeetan gauzatzea
- Diruz lagundutako jarduera burutzeko behar diren baimen guztiak eskuratzea, eta horietan ezarritakoa betetzea.
- Onuradunak bere sormen lana jendaurrean lehenengoz Durangoko Azokan aurkeztea, eta gero beste behin, Durangoko udalerrian.
- Lanak 2027ko urriaren 1erako amaituta egon beharko du eta 2027ko Durangoko Azokan aurkeztuko da lehenengoz.
  - Argitalpenen kasuan, beka onuradunak baldintza hauek bete beharko ditu:
    - Gutxienez 200 ale-kopuru argitaratuko ditu, eta horietako 25 ale Gerediaga Elkarteari emango dizkio.
    - Argitalpena auto-ekoizpena edo Euskal Herriko diskoetxeren batekin adostua izango da.

- Grabaketarik balego Euskal Herriko estudioetan egin beharko da.
- Antolatzaileek (Gerediaga eta Durangoko Udala) euren logoak ezarriko dituzte lanaren zabalkunderako euskarrietan.

### 11. Sorkuntza Bekaren zuriketa

Honako egiaztatze agiriak aurkeztu beharko dira bekaren zuriketa egiteko:

- Lanaren ekoizpena.
- Burututako lanaren egiaztapen eta lekuko gisa baliagarri izango den dokumentazio grafiko, argitalpen edo ikus-entzunezkoa.

### 12. Itzulketa

Onuradunak kontratu pribatua sinatuko du Gerediaga Elkartearekin eta jasotako diru-laguntza itzuli beharko du, ezarritako baldintzak ez baditu betetzen.

### 13. Lanaren zabalkundea

Deialdi honetan parte hartzeak, eskatzaileak honako zabalkunde baldintzak onartzen dituela esan nahi du:

- Gerediagak, onura gabeko asmoz, edozein formatutan (paperean edo digitalean) argitara dezake proiektuari buruzko informazioa.
- Gerediagak sormen lanen irudiak erabil ditzake, zabalkunderako webgune, sare sozial edo argitalpenetan, beti ere, bere osotasunean ez bada, eta lanaren jabetza aipatuz.

Aurkeztutako proiektuaren jabetza intelektualari buruzko erreklamaziorik egongo balitz, proiektua aurkeztu duen pertsona izango litzateke horren erantzule.

### 14. Datuen babesa

Europako Legebiltzarreko eta 2016-ko apirilaren 7-an Kontseiluko UE 2016/679 araudian jasotakoarekin bat Gerediaga Elkarteari jakinarazten du, Pribatutasun Politika onartuz, Sormen Bekara proposamena aurkeztuta, baimen informatua, berariazkoa, librea eta agerikoa ematen zaiola Gerediaga Elkarteari emandako datuak tratatzeko.

Datu hauei indarrean dagoen legearen segurtasun neurriak, neurri teknikoak eta antolakuntza neurriak aplikatzen zaizkie. Ez zaie daturik utziko hirugarrenei, legeak agindu ezean.

Datuen tratamendu arduraduna, Gerediaga Elkartea da. NIF zenbakia G48113153, egoitza soziala Larrasoloeta 3, 48200 Durango eta kontaktuko posta elektronikoa: [gerediaga@gerediaga.eus](mailto:gerediaga@gerediaga.eus)

### 15. Oinarrien onarpena

Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.